

## DESTINOAK ESLEITZEKO FASEA: LANPOSTUAZ JABETZEKO INFORMAZIOA EPE 2018-2019

1.- Destinoa lortu dutenek **hilabete** daukate lanpostuaz jabetzeko, langile estatutario finkoa izateko izendapena jasotzen duen Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurreikusitako epe horretan esleitutako destinoaz ezin badira jabetu, harremanetan jarri beharko dira behealdeko telefono horretara deituz; horrela, hala badagokio, lanpostuaz jabetzeko epea luzatzeko eskatu ahal izango dute.

2.- Lanpostua jabetzan **Osakidetzako Erakunde Zentraleko egoitzan** hartuko da (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), 9:00 eta 13:30 bitartean. Aldez aurretik, **hitzordua eskatu** beharko da 945006338 / 945006150 telefonora deituz.

3.- Lanpostuaz jabetzeko epean esleipenduna Osakidetzan ari bada lanean, bere zentroko Pertsonaleko Zuzendaritzan jakinarazi beharko du **lanpostua utziko** duela, jabetzerako aurreikusitako egunaren aurretik, aurrerapen nahikoaz, zentro horrekin duen zerbitzu- harremana amaituko bada.

4.- Esleitutako destinoaz jabetzeko, interesdunak **dokumentazio hau** eraman beharko du Osakidetzako Erakunde Zentraleko egoitzara:

- *NAN, pasaporte edo gidabaimena.*

- *OTI edo Gizarte Segurantzako kartilla (Gizarte Segurantzako alta-zenbakia).*

- *Mediku-azterketaren ziurtagiria, Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuakemana.*

- *Zinpeko deklarazioa edo promesa, inolako administrazio publikoko zerbitzutik baztertua ez dagoela eta. Dokumentu hau Osakidetzako Euskal osasun zerbitzuak eskainiko du.*

- *Erantzukizunpeko deklarazioa, Adingabekoaren Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzearen eta Sexu-delitugileen erregistro zentraletik egiaztatzea eskuratzeko baimena, Osakidetzako zuzendari nagusiaren urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenarekin bat etorritik.*

- *Elkargoko kide izatearen egiaztatzea, deialdiko oinarri espezifikokoetan hala eskatzen denean.*

5.- Araudian jasotzen diren arrazoietakoa bat dela-eta esleipenduna ez balitz esleitutako destinoan hasiko (eszedentzia bateraezintasunagatik, familia-eszedentzia, amatasun-baja...), lanpostuaz jabetzeko unean horren berri eman eta egiaztatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko luke.

6.- Lanpostuaz jabetzen diren esleipendunak, dagokien zerbitzu-erakundeetan hasi beharko dira lanean lanpostuaz jabetu eta hurrengo egunean.